



BERGARAKO EMAKUMEEN
AHALDUNTZERAKO TXOKO FEMINISTA
SORTZEKO PROZESUA

GOGOETA-PROZESUAREN EMAITZA

2025/10/24

AURKIBIDEA:

1. Zertarako da txosten hau?
2. Nolakoa izan da prozesua?
3. Zertarako behar dugu emakumeon ahalduntzerako txoko feminista bat?
4. Txokoaren izpiritua: balio eta amets konpartituak
5. Zer topatu nahi dugu bertan?
6. Nolako espazioa behar dugu?
7. Txokoaren muskulua: parte hartzaileak eta funtzionamendua
8. Eta hemendik aurrera zer?



1. Zertarako da txosten hau?

Bergarako herriak ekipamendu eta zerbitzu publiko ugari ditu egun, baina baita gabeziak ere. **Arrizuriaga Jauregiaren bidez**, Udalak bi behar nabarmen asetu nahi izan ditu: batetik, **Kultur eta sormen espazioa**, herriko kultur eragileen elkarlanerako eta herri mailan sormena eta kultura zabaltzeko, eta bestetik, **emakumeen ahalduntzerako txoko feminista** bat irekitzea herrian. Bi proiektu hauen elkarbizitza antolatzeko urtea izan da 2025a, bi prozesu parte hartzaileen bidez.

Txosten honek Bergarako emakumeen ahalduntzerako txoko feministaren, proiektua, eskaintza, antolamendua eta baliabideak zehazteko **gogoeta-saioen bidez egindako bidea labur jasotzea du helburu**.

Mahai inguru batekin hasi zen Emakumeen Txokoaren prozesua 2025eko otsailean, eta martxotik maiatza bitarte lau gogoeta saio egin dira.

Udazkenean zehar Gipuzkoako hainbat Emakume Txokoetara bisitak antolatu dira (Zumaia, Errenteria eta Arrasate), eta urrian azken gogoeta saioa egin da.

Saio guztietako aktak eskuragarri daude “[Bergarako Emakumeen Txokoa](#)” web orrian.



Irudia: Prozesua aurkezteko prentsaurrekoa udalean, mugimendu feminista, jabeakuntza eskolako partaideak eta udal ordezkariak osatua. 2025/02/26
Iturria: Bergarako Udalaren web orria.



2. Nolakoa izan da prozesua

Bidea ez da prozesu honekin hasi lehen orrialdeetan azaldu bezala. Bergarako emakume eta mugimendu feministen eskariarekin hasi zen eta udalaren erabakiarekin jarraitu du. Prozesua hasterako jada Arrizuriaga Jauregiko obrak hasiak zeuden, baina esan beharra dago eraikinaren antolamenduan eragin zuzena izan duela gogoeta-prozesu honek.

Gogoeta prozesua otsailean hasi zen, Emakumeen Etxeei buruzko mahai-inguru batekin. **Mahai inguruaren izena “Bergarako Emakumeen Txokoa zertarako?” zuen izena.** Mahai-inguruaren helburua izan zen Bergarako herritar orori Emakumeen Etxeak zer diren azaltzea eta haien inguruan dauden gogoeta feministak herrira ekartzea.

Mahai ingurura lau hizlari gonbidatu ziren: *Oñatiko Emakumion Etxia* prozesuko partaide, eta egun, dinamizatzaile den Jone Arrazola, *Basauriko Marieneako* dinamizatzaile eta elkarteko kideak, Bego Moreno eta Biki Pozo, eta *Bergarako Martxanterak* taldeko Luciana Alfaro. Mahaiaren dinamizazioa Bergarako berdintasun teknikariak gidatu zuen. 45 pertsona inguru hurbildu ziren mahai-ingurura.

Partaide askorentzat mahai-inguruak Emakumeen Etxeen testuingurua ezagutzeko balio izan zuen, baina beste askorentzat erantzunak baino galdera eta zalantzak sortzeko espazioa izan zen. Abiapuntu horrekin eman genituen lehen pausoak gogoeta-saioak antolatzeko.

Gogoeta-saioak martxotik urrira bitarte egin dira. Orotara 50 emakumek hartu dute parte, 4 jatorri edo herrialde ezberdinetakoak. Nagusiki euskaraz aritu arren, gaztelaraz lan egin duten taldeak egon dira. Itzulpen zerbitzua egon da prozesuan.

Aurrez esan bezala, laugarren eta bosgarren saioen artean **hiru emakumeen etxeetara bisitak antolatu dira:** Zumaia, Erreterria eta Arrasatera. **Bisitetan 10 bat emakumek hartu dute parte.**

Saio jendetsuenean 24 emakumek hartu zuten parte, 21 eta 23 artean gehienetan, eta partaide gutxien bildu dituen saioan 10 pertsona bildu gara.

Beheko irudian azaltzen da prozesuan zehar eman diren pausoak.



Prentsaurrekoa



Mahai-inguru irekia



4 gogoeta saio



Beste emakumeen etxeei bisitak



Azken gogoeta Saioa

3. Zertarako behar dugu emakumeon ahalduntzerako txoko feminista bat?

Lehen saioetan zehar behin baino gehiagotan heldu genion prozesuaren oinarria eta abiapuntua zen galderari: **zertarako behar dugu emakumeon ahalduntzerako txoko feminista herrian?**

Bergarako txoko feminista konbikzio sakon batetik sortu da: **feminismoak gizartea antolatzeko alternatiba bat eskaintzen du, bizitza eta zaintzak erdigunean jartzen dituena.** Erritmoak, produktibitateak eta lehiakortasunak lehentasunak ezartzen dituzten mundu honetan, feminismoak gogorarazten du bizitzari eustea dela funtsezkoena. Justizia sozialaren eta ongizate kolektiboaren oinarri gisa, historikoki ikusezin eta feminizatu diren zaintzak baloratzen dituen begirada eraldatzailea jarri du mahai gainean. "Bizitza guztiak erdigunean" proposamen politikoa garatzeko espazioa izango da Bergarako Txoko Feminista.

Aldi berean, txoko feministak premia larri bati erantzun nahi dio: **emakumeek bizi duten zapalkuntza estrukturalari,** kontuan hartuz emakume guztiak ez garela leku beretik abiatzen. Izan ere, interseksionalitateak gogorarazten digu desberdintasuna beste ardatz batzuekin gurutzatzen dela, hala nola adinarekin, jatorriarekin, dibertsitate funtzionalarekin, sexu-orientazioarekin edo egoera ekonomikoarekin, besteak beste. Beraz, gune hau topagune, ahalduntze eta hausnarketa partekaturako gune bat izango da; Bergara justuagoa, anitzagoa eta biziagoa eraikitzeko etxe kolektibo bat, esperientzia guztiak aintzat hartuz eta benetako berdintasunarekiko konpromisotik abiatuta.

Bukatzeko, herrian **indarkeria matxistari aurre egiteko espazio erreferentea** izango da Bergarako Txoko feminista.

Gauzak horrela, adostasun zabalarekin iritsi gara Txokoak sustatu beharko dituen bost misioetara. Hauek dira bost misioak:

1. **Emakumeen ahalduntzea:** genero-bereizkerien kontzientzia bultzatu eta bereizkeriei hobeto aurre egiteko gaitasunak handitzeko prozesuak sustatzea.
2. **Komunitatea eta talde nortasuna indartzea:** ahalduntze kolektiboa sustatzea, elkarrekin eta elkarlanaren bidez kolektibo osoaren egoera hobetzea.
3. **Praktika feministak bultzatzea:** espazioak eta proiektuak balio behar du praktika feministak eta aktibismo feminista indartzeko.
4. **Ikuspegi interseksionaletik justizia soziala era zabalean bultzatzea:** bereizkeria egoerak ez baitatoz soilik emakume izatetik. Adinak, jatorriak, kultura gutxitua izateak, genero-identitate eta harreman afektibo-sexualek, egoera sozioekonomikoak eta abar bereizkeriak areagotu ditzakete. Horregatik ikuspegi zabalagotik eragin nahi da.
5. **Proiektu euskalduna izatea:** Bergaran kokatutako proiektua izatea, bere herriko nortasun eta kultura babestu eta biziberritzeko balio duen proiektua izatea.



5. Zer topatuko dugu bertan?

Txokoaren bost misioak betetzeko bidea Txoko barruan garatuko diren hainbat jarduera izango dira. Jarduera zerrenda zabala proposatu dute partaideek eta lau bloketan antolatu dira. Orriaren eskuinaldean daude jasota.

Jarduera guztiak **doakoak izatea** aurreikusten da, printzipioz.

- **Ahalduntzerako tailerrak** jada Berdintasun Saitetik eskaini ohi diren ikastaroak dira, baina aurrera begira, Txokoan parte hartzen duten emakume eta eragile feministekin batera adostea edo antolatzea izango da asmoa eta. Ahalduntze-tailerrak urtean bi aldiz eskainiko dira.
- **Talde-iraunkorrak era autogestionatuan edo berdintasun sailak bultzatuta antolatuko dira.** Ez dute zertan egutegi zehatz bat izan: partaideen artean erabakiko da funtzionatzeko modua. Beharrezkoa denean, dinamizatzaile profesionalak ere kontratatu ahalko dira, izan Udalak edo elkartegintzak sustatuak.
- **Zerbitzu profesionalak Udalak eskainiko ditu printzipioz**, nahiz eta Txokoan parte hartzen duten emakumeen eta eragile feministen iritziarekin egin. Modu horretan Udala egingo da gastuen eta kudeaketa orokorraren kargu, eta udaleko eta beste instituzioetako gainontzeko zerbitzuekin hobeto koordinatzeko aukera izango du.
- **Jarduerarik gabeko espazioak emakumeek eta eragile feministek erabiltzeko baliabideak izango dira.** Helburua da harreman informalak sortzea, aktibismo berritzaileak sortzea eta udalarenak ez diren jarduerak antolatzea emakumeek eta eragile feministek.

Aipatu beharra dago sukalde iraunkor bat egoteko ezintasuna duela eraikinak, baita berdegunean esku-hartzekoak ere. Horrek sukaldaritza eta naturarekin harremana zuten zenbait jarduera mugatu ditzakete. Hala ere, ekimen puntualak egiteko aukerak aztertu dira egitasmoan: baratze bertikalak, sendabelar lorontziak, "office" gunea zenbait sukaldaritza jarduerentzat edo catering-a, bestak beste.

Azkenik, proiektua osatzen duten jarduera guzti hauek ez dute zertan Arrizuriaga jauregian bertan izan. Izan ere, proiektua deszentralizatua izatearen beharraz hitz egin da, eta ikastaro eta jarduerak auzoetara eramateaz.



*Saioetako aktetan ikus daitezke proposatu diren jarduera guztiak.

6. Nolako espazioa behar dugu?

Emakumeen ahalduntzerako txoko feministaren **egoitza izango da Arrizuriaga Jauregiko bigarren solairua.**

Bertako espazioaren antolamenduak Txokoaren proiektuari eta erabilerari erantzun beharko dio. Horregatik, hainbat lanketa egin dira saioetan espazioaren banaketari buruz hitz egiteko. Besteak beste, eraikitze fasean zegoen espazioa bisitatu dugu.


Arkitektoekin egindako lanketen ostean espazioaren banaketa bat baino gehiago aurkeztu ditu Udalak eta saioetan iritziak eta ekarpenak jaso dira. Azken emaitza da orri honetan jaso dena.

- **Labur esanda:** Harrerako langilearen bulegoa egongo da sarreran, baita espazio kolektibo irekia ere (sofak, liburutegia, office...). Planoaren eskuinean 2 areto nagusi daude, elkartzeko aukerarekin. Bertan mugimenduzko ekintzak, aurkezpenak, hitzaldi handiak egin daitezke. Bi zerbitzu gela egongo dira eta bilera gela txiki bat. Horrez gain bi tailer gela; bata iturriarekin, eskulanetarako aukerarekin (10 pertsona) eta bestea talde ertainentzat (12-15 pertsona). Komunak eskailera ondoan egongo dira.

Espazioaren banaketaz gain, **hainbat ohar** ere egin dituzte parte hartzaileek.

Esaterako, irisgarritasuna bermatzea espazioan eta ekintzetan, hau da, harrerako mostradorea eta komunak egokituak izan behar direla nabarmendu da. Haurrentzako gune formalik ez egon arren, solairura etorriko direla aurreikusi behar da, eta material edo txokoren bat egokitu beharko da txikientzat. Horrez gain, beharrezkoa denean zaintza-zerbitzua ere egongo da. Liburutegia espazio kolektiboan jarriko da lasai zauden bitartean liburuak kontsultatu edo aldizkariak irakurtzeko. Azkenik, elkarteentzako materialak gordetzeko armairuak eta Txokoko almazena ere beharko da, eta horretarako espazioak egokitu dira.

Nabarmendu beharreko kezka bat geratu da airean espazioaren antolamenduari dagokionez: **eraikinaren sarreratik Txokoaren bigarren solairura iristeko erraztasunak eta arreta ondo antolatu beharko dela**, batez ere zailtasun gehien dituzten emakumeen beharrak asetzeari begira.



Aukera bozkatuena:

Sarreraren aurrean topagune espazio irekia du, hasierako proposamena baina handiagoa.

Harrera gela mantentzen da eta bere atzeko zerbitzu gela ere.

Bigarren zerbitzu gela bat dago solairuaren beste aldean eta bilera gela txiki bat.

Bi tailer gela (bata eskulanetarako) eta bi areto nagusi, mugimenduzko arketak egin daitezkeenak bertan.

Bi areto handiak batu daitezke eta bigarren zerbitzu gela eta gela txikia ere.



7. Txokoaren muskulua: parte hartzaileak eta funtzionamendua

Txokoko parte hartzaileei buruz:

Hasieratik proiektuak **emakumeen ahalduntzearekin** lotura zuzena izan du, eta abiapuntutik emakumeentzako espazio bat izatea aurreikusi da.

Baina errealitatea konplexua denez, **identitate-anitzak, batez ere feminismoarekin lotura dutenak** ere kontuan hartzeaz hitz egiteko eskaria egin dute batez ere neska gazteek.

Horrez gain, genero-berdintasunera iristeko **gizonekin ere lan egin behar dela argi dute partaideek**. Gauzak horrela, ahalduntze-eskola edo jabetze-eskola emakumei eskainiko zaien arren, proiektuaren baitan agenda feministaren bidez egingo den eskaintzan gizonek parte hartzeko aukera izatea egoki ikusi da. Hala ere, jarduera-mistoak edo gizonei zuzenduak, printzipioz, Jauregiko eta herriko beste espazioetan egitea lehenetsiko da. Izan ere, espazio seguruak izatea nahi da, bai emakumeentzat, baita lanketak egiten ari diren gizonentzat ere.

Azkenik, **espazioa irekia izango da**, doakoa eta librea, adin tarte guztiei irekia, nahiz eta eskola eta zerbitzuen erabiltzaile nagusiak emakumeak izan.



Funtzionamenduari buruz:

Txokoaren antolamendua edo funtzionamenduaz aritzeko Euskal Herriko beste hainbat etxeetako adibideak aztertu dira saioetan, eta Gipuzkoako hiru Emakumeon Txokoei bisitak egin zaizkie.

Funtzionamenduari dagokionez, Bergarako gogoeta-saioetan **korapilo bat nabarmendu da**: nola egin ekipamendu publiko bat izateko, eta era berean, zerbitzu-asistentziala, instituzionalizatua ez bihurtzeko. **Nola eutsi aktibismo feministari munizipala den ekipamendu batean?**

Ondorioa izan da ezagutu diren **Txokoen funtzionamenduak aldatuz eta egokituz joan direla denboran zehar behar berriei egokitzeko**. Gauzak horrela, Bergara Txokoak ere bidean eraldaketak biziko dituela sinistuta daude partaideak.

Momentuz, **langilea udalarena** izango dela erabaki da, proiektua abiatzen den bitartean. Kontratazioa urte amaiera aurretik egingo da. Langileak mugimendu feministaren eskutik eta herriko eragileekin elkarlanean aritzea aurreikusten da.

Denek ikusten dute emakumeen parte hartzea sustatzeko espazioa izango dela Txokoa, horregatik, bertan **emakumeen asanblada bat egotea** aurreikusten da. **Etorkizun batean, talde eragileren bat egotea nahiko litzateke, baita beharraren arabera lantaldeak ere.**

Azkenik, **partaide batzuk elkarte bat sortzeko ideia** ere ez dute baztertzten proiektua bultzatu eta langilea elkartearena izateko helburuarekin. Baina hori egin ahal izateko baldintzarik ez dago egun.

8. Eta hemendik aurrera zer?

Gogoeta prozesuak honaino ekarri gaitu. Jakina da proiektuak bizia dela, eta probatzen joan ahala egoera eta behar berriei egokitzeko aukera egongo da. Gauzak horrela, emakumeen ahaldunderako txoko feministaren proiektua martxan dago, nahiz eta definizio fasea ia amaiezina den.

Baina aurrera begira zeregin ugari geratu zaizkigu mahai gainean, tartean, txokoaren izena bera. **Hauek dira identifikatu ditugun zenbait zeregin:**

1. **Asanbladaren funtzionamendua adostea.**
2. **Txokoaren funtzionamendua argitzea eta** Jauregian kokatuko den **Kulturako proiektuarekin harremana** egin eta koordinatzea.
3. **Egitasmoa herrian zabaltzeko proposamena egitea.** Herriko eragileei, herritarrei eta emakumeen kolektibo zehatz batzuei. Bestalde, planteamendu komunikatibo bat egitea, hedabideetan emaitza nola zabaltzea jasotzen duena.
4. **Txokoaren izena** adosteko prozesuaz hitz egitea.
5. Txokoaren **inaugurazioa** antolatzea.

Udalak koordinatzaile bat kontratatuko du emakumeen ahaldunderako Txoko feministaren proiektua bultzatzen jarraitzeko.

Gauzak horrela, Berdintasun Siletik emakumeen ahaldunderako Txoko feministaren **asanblada jarriko du martxan**, printzipioz, **prozesuan parte hartu duten 50 emakumeak gonbidatuz.**

Berdintasun Sailak asanbladara eramango ditu aurrera begira identifikatutako zereginak lantzeko proposamenak. Saiotetan parte hartu duten **kide batzuk proiektuaren bultzadan laguntzeko prest daudela adierazi dute**, laguntza puntualak eta jarduera zehatzetan beren energia jarritz.

Momentuz asanbladaren dinamizazioa Berdintasun Siletik egingo dela aurreikusi da, baina irekita geratzen da, etorkizunean, aukera baldin badago, asanbladak bere burua autogestionatzeko.



**Emakumeen ahaldunderako
TXOKO feministaren asanblada
aktibatuko da udazkenetik
aurrera**

**KOORDINATZAILE BAT KONTRATUKO DU
UDALAK HORRETARAKO**



www.elhuyar.eus